



Ekainaren 22tik aurrera errefusarentzako eta pixoihalentzako edukiontzien sarrailek aktibatuko dira eta txartela beharko da

COVID-19 delakoaren ondorioz, martxoaren 17an errefusa, organiko eta pixoihalentzako edukiontzien sarraila elektronikoak indargabetu ziren, baita landa-eremuetako birziklatze-guneetara eta etxoletara sartzeko ateak ere, txartelik gabe ireki ahal izateko.

Pixkanaka, [Sasieta Mankomunitatea](#) sarraila guztiak aktibatzen ari da aurreko egoerara itzultzeko. Beraz, edukiontzia irekitzeko berriro beharrezkoa izango da txartela erabiltzea.

Ekainaren 22tik aurrera, errefusa eta pixoihalentzako edukiontzien sarrailek aktibatuko dira bai eta landa-eremuetako birziklatze-guneetara eta etxoletara sartzeko ateak ere.

Norbaitek txartela galdu badu, lehenbailehen 943 16 15 55 zenbakira deitzea komeni da, beste txartel bat bidaltzeko.

Errefusarentzako eta pixohialentzako edukiontziak irekitzeko txartela erabili beharko

Azken eguneratzea: Ostirala, 19 Ekaina 2020 11:27

Argitaratua: Ostirala, 19 Ekaina 2020 11:27
